

Katolikoek eta komunisten arteko elkarrizketaz

Lan hau guztiz ulertzeko, egokia da ARRAGOA'n argitaratutako bi artikulu kontutan hartzea :

— *Martin Irumugarrieta*'ren „*Algunas reflexiones sobre el diálogo entre católicos y comunistas*” (Arragoa, 2-gn.z.);
— *Ignacio Muruzabal*'en „*Contribución diálogo entre católicos y comunistas en Euzkadi*” (Arragoa, 5 gn.z.).

Ei artikuluetan erabiltako gai zenbaiten inguruan arildua baita, zukako tratatu zuzena eta eztabaida-giroa agertzen zaio batzutan.

Jose AZURMENDI'ren azterketa hau luzea baita, atalka argitaratuko dugu. Hasierako kapitulu filosofikoa gerorako uztea erabaki da, bigarrenetik hasiaz.

II. ZER DA MARXISMOA ?

Zuk, Irumugarrieta, ARRAGOA-ren kontextoan jartzen duzu zeure burua eta aldizkari honek nahi duen elkarrizketari eragiteko idatzi dituzu zeure gogoetak (or. 88). Errepresentazio bat ba duzu, beraz.

Baiña prolema batekin topatzen gera elkarrizketarako prestatu orduko. Zeiñekin hitzegin nahi dugu ? Zer da marxismo-leninismoa ?

Urte sailla egon zaigu marxismoa baraturik, aurrera jotzeko adorerik ez-ta. Filosofoek filosofiaz erabaki ezin zutelako, hain zuzen marxismoa politika baten zerbitzuan (esklabo ez bazan) egon zaigulako. Hau aitortzen digute Sartre-k, Fischer-ek, Garaudy-k, hiru joera aipatzeko. Zitak zitatzea bihurtu zitzaigun filosofia. Politika baten apologista bihurtu zitzaizkigun filosofoak.

Gutxi eboluzionatu zuen aldi honetan marxismoak. Gogortu egin zan („adimenaren esklerosis” esan du marxistaren batek), eta gogortu ezezik, zenbaiten esanean, itxuragalduta eta deformatu. Denporaldi honetako aldakuntzen artean Stalin-ek hizkuntzari buruz eragindakoa gogora genezake. Ots, Stalin aurretik marxista filosofo gehienek estrukturagaintzat zeukaten hizkuntza — zerbait argituko lizkiguke honek geroago agertuko zaizkigun (bidenabar bakarrik) illunberen batzuek. Hizkuntzari, bada, klasetasuna zegokion eta estrukturagaiñen prozesoa segitzen zuela uste zan. Erabat aldatu zigun ikuspegi au Stalin-ek (*Der Marxismus und die Fragen der Sprachwissen-*

schaft). Hizkuntza, Stalin-en esanean, gizarte fenomenoa da, ez e-
strukturagaiñari itsatsia, ezpada zuzen zuzen, basearen tartekotasunik
batere gabe, produziñoari lotzen zaiona. (Baezpadan esan dezadan
hemen Lenin-ek berak ez gutxitan gorai patu zituela Stalin-en filoso-
fia azterketak).

Hontaz kanpo ba dirudi Stalin-ek naturalezaren eta bereziki kon-
dairaren martxa objetibotu, bereizatezkotu zituela, zuhur dirudiena
baiño gehiago, eta bide batez desgizondu : kondairaren martxan gi-
zonaren borondateak duen eragiña kaxkar etsi zala eta gizonaren
irudia itxuragaiztotu. Cfr. Girardi-ren geroago esango dan artiku-
lua ; Wetter, op. cit., or. 77-78 : E. Fischer, *Kunst und Koexistenz*,
1966, liburu honetan ozta ozta nunahi.

Politikoen triunfalismoa filosofoen kezka kontraesaten zuten. Cfr.
Henri Lefèbvre, *Problèmes actuels du Marxisme*, Marxismoaren krisia
ta Filosofiaren krisia. Hemen ez digu ardura krisi hau nola interpre-
tatuak, hazinahi-krisi ala erio „agonia” (Merleau-Ponty). Kezka bat
da nik oharrerazi nahi dudana. Eta kezka honek hartzen zuen forma :
marxismo filosofia honezkero umeldua, superatua iruditzen zitzaion
gazteriari, (dan ala ez, ez dut baieztatzen, ez da gure arazo). Iritzi
honen kausa desberdiñak zenbatu dituzte marxista filosofoek : beren
arteko elkarrizketa falta (Lombardo Radice), dogmatismoa (Lefè-
bvre), jakintzari jarraitu eza (Havemann), antropologia ta persona-
lismoa destaiñatu izana, etc.

Deskontentu honek milla aldetatik leher-egin digu, eta, gaur, hos-
toak udaberrian bezala ari zaizkio marxismoari interpretazioak uga-
ritzen. Ez da erreza marxismoa zer dan jakiten. Frantzia-n bakarrik,
esate baterako, ba ditugu hiru eskola edo joera gutxienez, elkarren
etsai diranak. Pierre Naville-k errepresentatzen duen joera, trots-
kista edo omen dalakoa. Bigarrenari interpretazio „filosofisistemaz-
koa” esango diogu, Alfred Schmidt-ekin. Izen honek, halare, joera
oso desberdiñak elkartzen dizkigu : Sartre-ren marxismo (?) ezta-
baidatutik Garaudy-ren ofizialerañio (honen filosofia dexente aldatu
dala ahaztu gabe). Eta hirugarrenez Henri Lefèbvre, Kostas Axelos,
etc. agiri zaizkigu oraindik.

„Herejeak” ere sortu dira, gaiñera, eta ez kaxkarrak. Eta holako
herejeren batzuek zenbait lurraldetan nagusitu ere egin dirala agiri
zaigu. Beste batzuek, aldiz, Komunista Alderditik erauziak izan dira,
edo Alderdiok zatibitzea iritxi dute. Baiña komunismoak ere anate-
matik tolerantziara etorria dirudinez, filosofo marxisten (eta Alder-
dikoek) artean bertan ere ez dago gehiago batasunik. Eta marxis-
moa filosofia dan ezkerero, alegia, Kontzilio hutseziñik ez duen ezkerero,
ia iñork ez daki ziur gaur Marx-en marxismoa zein dan. Hortan
propio ari zeratenok eta zeuen buruak marxista izentatzen dituzuenak
elkar ukatzen duzute-ta !

Marxismoak sofritu duen „mende laurdeneko esklerosis intelektual”
au (Garaudy) gainditzeko, (gaitz honen iturburu bat elkarnizketa
falta omen baitzan), autonomia eskatzen dute intelektualek (eta Al-
derdiek) eta elkarrizketa eta fede komunista erlabibotzea (Entdog-
matisierter Marxismus) entseiatzen digute. Aixa igarri diteke nolako
zalaparta harrotuko zuen marxista filosofo batek idazten zuenean,

jakintzaren emaitzak ez dirala ez proletario ez burjes, baizik egia ala gezur, edo ta Marx-ek etzeukala zergatik bere hitz bakoitzean arrazoia eukirik (cfr. E. Fischer-en liburuan or. 55-59) etc.

Holako autokritika arrasto gutxi ikusi ahai izan dugu ARRAGOA-n. Berritasun honi guztiari estrainio gelditzen zaiola adierazten ote digu honek ?

ARRAGOA hereje ez dala, ez dala filosofia ofizialetik apartatu — Bloch, etc. bezala — ez dut dudarik. Baiña hortxe dago hain zuzen egoera baten xelebrea ta nahastua : Partiduaren pentsamentua azaltzen al digu ARRAGOA-k ? Eta zein zentzun dauka, honezkero, eztabaidan dagon filosofia bat *ofiziala* izateak ? Partiduak edo Errusia-ko agintariak filosofiarik, industria baten moduan, zuzentzeko, gidatzeko ta haren egia epaitzeko gaitasunik ba ote dute akaso ? Norekin abiatzen dugu elkarrizketa hau : marxismoaren teorikoekin, ala Alderdiarekin ? Umore onez esan du Fischer filosofo eta esteta marxistak : ideologia baten pakea ta sosegua ez du ezerk hain zirikatzen, ideiek bezain tximitx. Ideiek ez baitituzte ideologiak nahi lituzketen mugak errespetatzen.

Er ditut galderaok alfer eta zirika gustoz plazaratzen. Galderaok eta erantzunak ere nola edo hala emanak agiri zaizkigu zenbait komunista barrutitan (beraz, ARRAGOA-n ere argiturik nahi nituzke ikusi) : Yugoslavia-n, Estadu „ez-ideologikoaren” alde agertu zaigu Pavicevic ; Salvatore di Marco-k eta Lombardo Radice-k Errusia-ko „monolitismoa” kritikatzeko digute Italia-n, zer esanik ez Errusia-ko jokabideak ere baietz, nahiz zeharka (L. R.-k : ez dut Errusia-ko jokaera eztabaidatu nahi, baiña egiten ez badut, „non lo faccio per nascondere o minimizarre un dissenso, *che risulterà chiaro* dalla argomentazione”) naiz zuzen zuzen („... strutture centralizzate e burocratiche del PCUS dalla cui logica autoritaristica scaturisce il metodo che si è condannato”, S. di M., Krutxov ondoko denporaz ari dala. Cfr. *Il Dialogo alla Prova*, or. 89 eta 400) (7) marxismoa ere beste edozein filosofia bezalaxe mugatu eta hutsegikor dala kofesatuz (8); Machovec-ek, Txekoslovakia-n, halako erlatibismo bat edo irakasten du eta Estaduak eta aginpideak „gogor” irauten duten artean intelektualek nolabaiteko liberalismo bat („izpiritu liberala” esatekoan duen zentzunean, noski) zabaltzen saiatu belar dutela (Garaudy-k kontra eraso dio, intelektualaren „aldekotasunaren” — *Parteilich-*

(7) Une honetako zitak, eta italiarrenak batez ere iturri hoetatik jaso ditut : **Il Dialogo alla Prova** gehien erabilia. Paulusgesellschaft Biltzarren argitalpen batuak (argitalpen alemanak erabili ditut). Aldizkariak, batez ere : L'Unità, Rinascita, Documenti sul Comunismo, Razón y Fe (1965, julio. Lumero one-tako Alvarez Bolado-ren lana Garaudy-k objetibo ta zorrotz bezala txalotu du), Mensaje (Chile, 1966, mayo), Glas Koncila (Yugoslavia. Adixkide batek itzulia), Stimmen der Zeit.

(8) „Zer da marxismoa ? Estrukturagailu bat ? Ideologia bat (Proletariotzaren ideologi) Ala zientzia bat ? Baiezkoan, nola erantzi ote lezake zientzia honek ideologia ? — Erantzun zehatz baten faltagatik dago marxismoa 'aidean zintzilik', ideologiaren artean ideologia bat gehiago, edo ta teoria zientifiko, beste teorietatik nahikoa zeindu gabe”. H. Lefèbvre, **Problèmes actuels du Marxisme**, G) Ideologia ta ezagupen.

keit — izenean. Azterketari azpiratua dagon beste printzipio bat, ordea (9), baiña lurralde honetan batez ere Pruche filosofo gazteak gaitzetsi du „filosofia bat Estaduren filosofiatarra jasotzea”, hori „konfesionalismo filosofikoa” besterik ez dala-ta.

Hoek honela.

Aurrerago joanik, marxismoaren izenean gezur asko esan dala (Lefèbvre), interes zatar asko izkutatu (Havemann), aitortzen digute marxista batzuek orain. Ea politikak marxismoa hondatu ez ote duen ere. Komunista „klasikoez” (10), orobat, ixeka egin diote beti sartaldeko demokraziari, Demokrazia Herritarren aldean zirtzilkeria bat balitz bezala (nahiko zirtzilkeria diranik nere partetik ukatu gabe). Gaur, berriz, intelektualek askatasuna eskatzen duten artean eta komunismoari askatasunik eza kritikatu, Ingalaterra-ko ta Frantzia-ko demokrazia hobe irizten digu marxistaren batek. Garratz arbuiatzen digu Lombardo Radice-k beste filosofiak denporaldi baterako bederik, oinperatzea, areago debekatzea (indarra ez baiño arrazoia erabilli behar omen luke marxismoak beste filosofien aurrez aurre, joku garbi demokratikoan, eta ez Estaduaren laguntasuna, argumentuen poderioa baizik). Pruche-k zionez kaltegarri da oso jokabide hori filosofiarentzat, eta azkenean gizartearentzat eta Estaduarentzat berarentzat. Havemann-ek : „Gaurko sistema zozialistek errezegi bota dituzte erre kara demokrazia burjesen amaika forma, nahiz eta hoek gizarte kondairaren irabazi galezin eta betiko izan. Menperatzaileen erakunde juridikorako baliatuak izan dirala-ta, beste gabe destaiñatu dituzte ; arrazoi hortatik, jakintza ere berorrexegatik bazterreratu beharko zuketan”.

Adam Schaff poloniar marxista ofizialak Frantzia-ko edo Ingalaterra-ko askatasun ta eskubide demokratikoen egoera Demokrazia Herritarretakoa baiño hobetzat („eredu”) aitortzen digu, horretara pixkana pixkana iritxiko diralakoarekin konformatzen bada ere. Antzera Garaudy-k erlijioaz diardueña, aipatu liburuan, 2. Kap. azkenaldean.

Intelektual marxistentzat Errusia prolema bihurtu da. Eta ez bakarrik praxia egiaren kriterio omen dalako irakaspen marxista harengatik... „Herejeenak” agiri agirian kritikutzen dute, besteak

(9) Aldekotasunaren edo „partidismo” printzipioak artean ere — eta filosofianbalio duenentz, ala politikarako publizistikan bakarrik, eztabaidan dago. Cfr. E. Fischer-en liburuan, or. 193 ta ur., 55 ta ur., 191 ta ur.

(10) Destaiñarik batere gabe erabilli nahi nituzke **ofizial**, **klasiku** izendapenok. Hitzok ez dira agian oso egoki, baiña **klasiku**, adibidez, euskal idazle marxista batek erabillia digu honezkero, eta **ofizial**, parra parra topatzen dut marxisten idazkietan beretan. Komunista Alderdien jokabidea gehienbat gidatu edo harekin baiezekoan zeudeneri derizkiet horrela. Alderdikoak izanda ere, beronen baitan zalapartak sortu dituztenak, Alderdiko maiorantzaren eraso sofritu behar izan dutenak edo beste Estaduetako Alderdiekin hasarreak izan dituztenak, ezin ofizial edo klasiko joko nituen. Hontan, bada, klasikuen sailletik at uzten ditut bai heterodoxo xamarrak (Havemann, Bloch, Fischer, Lombardo-Radice, S. di Marco, etc.) bai ultrak (Georg Klaus), erabaki honetarako, zerbaiten beharrean, maiorantza ta DDR-ko unibesitarioendako esku-liburuak (URSS-ekoen itzulpen) kriterio arau harturik.

kondairaren premia ta ezinbestekotzat salbatu nahi digute. Dana dala, hor dago prolema. Demokrazia Herritarren esperimntua enbarazo neketsu gertatzen zaie (guztieri (11), batez ere URSS-eko Alderdi K.-ren 22, garren Biltzarra ezkeru).

III. ARRAGOA-ren MARXISMOA MARX-ena OTE DA ?

Zalaparta hau guztia ta marxismoaren ganbiamenduak, tamalez, Euskal-Herrian ez dira behar bezala ezagunak. Espainia-n ere ez (12). Nire galdera da, halare, ARRAGOA-ri berari arrotz gelditu ez ote zaizkion. Adibide pare bat ekarri nahi nuke.

-
- (11) Oso gutxitan agertzen digute intelektualok ARRAGOA-ren Errusia-ganako jaiera ez jaiera gisarik. Hoek ez diote Leonov kosmonautaren egaldia gora behera, edo Tokyo-ko olinpiada behera gora, laudorio salmorik entonatu. Industrializazio sendo batek edo kosmonauta miresgarrien ekintzek baiño Errusia-ko askatasun ezak (dagoeneko. uste dudanez, iñork dudatzen ez duena) kezkatzenago ditu ta arduratzenago. Ez digute begien bixtan dagona izkutatzen: esplikazioak billatzen dituzte, edo zeharo kondenatzen. Ez, ordea, Demokrazia Herritarrok „parabisu” diranik sinistu erazi nahi. Esan dugu Adam Schaff-ena. Errusia-ko egipideen objezioa mesedez utz dezagula (katolikuok), eskatzen zuen Lombardo Radice-k, Italia-koa ez dala Errusiako komunismoa ta. Alain Duhamel-en artikulo batean irakurtzen dudanez, Frantzia-ko K. Alderdiaren gidariek ere „forme originale de socialisme” bat proposatzen dute, eta konpromiso bat dirudi esaera honek. Yugoslaviarrak eta esandakoak honera birlandatzea ez da beharrezko. Demokrazia Herritarren jokabideak marxismoari nolako prolemak jarri dizkion konprogratzeko artikulo hau zehar aipaturiko lanetan begira leike. — ARRAGOA-ren marxismoak, berriz, ez du agiri Errusiari okerrik aurkitzen dionik. Baiña nolako dohaiak! Ez nuke pentsatu nahi marxismo ortodoxoez gaiñera ba omen diran atzeratietakoa dukegula.
- (12) Hontaz gaiñera, marxismoa zer dan ere illun zamär dabil euskal barrutian, berez puntua dan baiño aldrebesago, noski. Propaganda eta slogan-ideologia merke bat kausante, erreboluzioarekin, gogorkeriarekin bateratu dugu komunismoa. Muestrarako aski izango da bat. JAKIN, 20, or. 11-17, J.R. Beloki-k honelako galderak jartzen ditu: „desestalinizazio honek ez ote du esan nahi Errusia liberalizatzen dijoala, komunismoa lehengo bere garbitasun hura galtzen, eta ia benetako komunismoa gaur egun Txina-koa ez ote dugun, eta ez errusoa...” (or. 13). Eta berealaxe: „Beraz, komunismoari berean eusteko, berriro esan dezagun. absolutista behar du izan, Txina-koaren arabera” (or. 14). Alde batera utziko dut egiazko marxismoa Errusia-n ala Txina-n gordezten duten. Alabaiñan, orratio, nire kolkorako, bixtan dagola Errusia pittin bat liberalizatzen ari zaiguna. Baiña liberalizazioa komunismoari barneko kontraesan bihurtzen zaiola adierazi nahi digüte galderaok, komunismoak berezko duela absolutismoa, eta hori, jaun Beloki-rentzat errespeto guztiarekin, ez dago hain bixtan, niretzat beinpein. (Teoriaren aldetik begiratu ezkeru, behintzat, ze kondairaren perspektiban besterik genuke agian.) Aitzitik, esango nuke, Errusia gehiago liberalizatu ez bada kondairagatik, etc. izango zala, ez ordea marxismoaren teoriagatik, zeharo erraturik ez banabil, baizik komunismoa marxismo ez dan ginoan dirauela diktadurak, apika, eta indarragintek. Cfr. hontaz Lefebvre-ren liburuak. Beste galdera bat litzake, hemen ez dagokiguna, ez ote duten komunismoa hortaratu marxismoaren barneko zenbait kontraesan elkarrekiko, askatu gabe daudenek.

Gauza nabarmena da filosofian, marxismoaren alderdi flakoenetako bat personatasunari dagiona dala. Hor daude esistenzialismoarekin izandako eztabaidak lekuko. Eta hau ez da nik tatxatzen dudana : betidaniko marxismoaren etsai guztiek larrugorritua da eta azkenean komunistek berak aitortu digutena. Marxismoan, oraindik ere, ez du gizonak bere barnea ulertu ta atzeman (Lefèbvre, *Matérialisme dialectique*). Komunismoak ez dio gizon alienatu ta bere buruari arrotz bihurtuari giza irudi konbentzigarririk kontra jarri („kein überzeugendes Menschenbild des Kommunismus”), Ernst Fischer-ek aitortzen duenez. Ikusi dugu Adam Schaff-en aitortza kristau personalismoari buruz eta filosofo honek berak dionez, Marx gaztearen ixkribuetan materiala ba omen dago, egon, gai honen desbiltzeko, baiña „pentsamentu marxista ofiziala” ez omen da hortaz arduratu eta horregatik gelditu da personarekiko alderdia txit kaxkar filosofia marxistan. Hasiak omen ditugu gaur lan hortan banaka batzuek, baiñan — Schaff-en iritzian, beti — denpora asko behar izango da osa dedin artean. Heidegger eta Sartre-ren esistenzialismoaz mintzatzen dalarik, Garaudy-k berebat, ez digu izkutatu marxismoak erantzun eskasak dituela „bizitza personalaren eta heriotzaren zentzunari buruz” („gaur erantzuna billatzen saiatzen geran galdekizun”) (aipatu liburuan) eta hori meriante abandonatu omen, du gazteriak marxismoa, erantzunok beste nunbait billatzeko. Errusia-n bertan holako zerbait akusatzen digu Vladimir Tendriakov-en eleberri *Harrigarri* dalakoak (italieraz Einaudi etxeak argitaratua). (Harrigarria zera da : irakaspen ateoaren kontra ikasleek fede berri bat ernerazi dutela). Garaudy-k nahi lukeanez marxismoak derrigor bereganatu behar du kristautasunaren Trazendentzia sena eta S. di Marco-k erlijioa ez dala sekula hilgo uste du, personaren Trazendentzia beharragatik. Trazendentzia hauxe utzi du, Bloch-en esanean, marxismoak alferrikaltzen eta premiazko du birrirabaztea. „Komunista Katolikoek elkarrekintzarako Togliatti'k aurreratzen zuen arrazoi erabilienetakoa dugu hau : etorkizuneko gizarteari katolikoek beren personalismoaren aberastasuna aportatu behar ziotela.” Vladimir Tendriakov-ek Errusia-ko eskoletan arimaren hillezkortasuna publikoki eztabaidatua bihurtu dedilla nahi du. Personaz, bere barnetasunaz eta Trazendentziaz, prolema asko dauzkala oraindik marxismoak argitasunik gabe, Erroma-ko „Convegno Internazionale di Studio sul tema Morale e Società” (Istituto Gramsci, 1964) harek ere garbi aitortua utzi zuen.

Personaren eta heriotzaren prolemak, beraz, ez du erantzun lasaigarrik aurkitu marxismoan. Izen oneko marxistek aitortu digute hori.

A r r a g o a -n, berriz, aixa erabakia dago nunbait prolema... „El problema de la muerte individual no es tal para el marxismo (bereztat ez dala esan baligu, sikira !), que lo tiene resuelto” (A r r a g o a, z. 4, or. 8). Niri, apriorismo ote dan eta adimenarekiko injustizia latza dan ustea sartzen dit orrek. Nola esplikatzen da hori? Enrique Uranga Cordero-k „esklerosis intelektual” sofritzen ote duen galde-tuko luke norbaitek. Ez nik, gero, Garaudy-k esaten du hori-ta (aipatu liburuan, Kap. III, atal b), hain zuzen gai honixe buruz diar-

duela. Fischer filosofo eta Austria-ko Partidu K. ren Politburo-koak, berriz, jokaera hori hipokresia gorri besterik ez dala salatzen du, eta batez ere stalinismoaren oiñordekotza. Hau hala bada, zera gogoratu nuke nik : alegia, Lenin-en esanean, hipokresia dala mundu burgesaren pekatuak itsusiena, burgesalgoa heriotzera galtzen duena.

Agiriegia dirudit niri marxismoaren flakia hori, ukatzen edo izkutatzen enpeiñatzeko. Gauza bat da persona batek edo batzuek ekintza batekin beren bizitzari zentzuna aurkitua, beste bat filosofia edo ideologia batek, subjektibismoak aldera, zentzun hori argitu al duen. Hori marxismoa ote dan galdetuko nuke nik, baiña bildur naiz olakoen aurrean norbaitek ez ote duen filosofiarik ere ba ote dan itaunduko. Eta, berriz ere, ez nik ! Ze, dogmatismoa eta prolemak ukatzea dira, eta hain zuzen, hauxe da Henri Lefèbvre-k marxismo tradizionalari tatxatzen ziona (cfr. *Problèmes actuels du Marxisme*, Kap. I, A. *Marxismoaren krisia eta filosofiaren krisia* ; eta B. *Dogmatismoa*).

Bai, asko ari zaigu marxismoa ganbiatzen. Katolizismoan bezalatsu, ordea, marxismoan ere ba omen daude „konzilioaurreko” marxistak eta ez gutxi. Elkarrizketarako, aldiz, gure posturak erlatibotzea beharrezko dugu. Egian gaudela danok uste izaten dugu. baiña egia (gure egia) zer dan ere jakin behar da, noski. Eta gure egia erlatibo xamar izan ohi da, ez da horren konzientzia galdu behar.

Horregatik, Irumugarrieta, ondo egiten duzu Jainkoagan dugun berdintasunaren inguruan, hau errealidadeari bihurtzean katoliko teologo zenbaitek kometaturiko okerreriak joandako denporetan pakean utzita. Noiz ikusiko ditugu zuen zera batzuek ere behin betiko joanda ?

Joana izatearen erlatibotasunaz gaiñera, eztabaida teorikoetan bereziki, esentziakoa ez dan guztia erlatibotu behar dugu. Hau da marxista intelektualengan honezkero agiri zaiguna. Marxismoa objektio guztien salbu dagolako ustea xinpleegia zan asko irauan ahal izateko eta ebidentziak purukatu du azkehean. Lombardo Radice-k azaldu bezala : „marxismoari marxismoa bere gaiñera itzultzen zaionean, zerako agirira irixten da bat : marxismoak ere bere hutsak eta alderdikeriak dituela, beraz osatua izan behar duela eta beste egien laguntzarekin borobildua . . .” (Salzburg, 1965). Horrelako zerbait gertatu zaio „zozialismo zientifikoari” jakintzak marxismoaren aldea progatzen zuelako ustearekin eta orobat jakintzaren aurrerapenak erlijioa txikituko zuelakoarekin. Jakintzak ez erlijiorik hondatu du (eta Garaudy-k berak esaten digu hori) (13) ez marxismoa-

(13) Itxaropen hori ilusio hutsa zala esaten du Garaudy-k, nahiz ta honek erlijioa noizpait berekasa itzaliko ta hilgo dala uste duen. S. di Marco-k, esan dugunez, ez dala iñoz hilgo eta **alienazio** konzeptoak (erlijioari itzultzekoan) birrikusia izan behar duela. Fischer-ek esaten digunez, erlijioa ezabatzea bere esku balego ez omen luke iñola ere holakorik egingo, milloika ta milloika gizon desgizontzea izango litzakeala hori-ta. Eta erlijioaren naturaleaz argitasunik egitera sartu nahi izan gabe, Lombardo Radice-k : „ez da egia ezagupen zientifikoaren aurrerapenak erlijio pentsakera **oro** desegiten duela ; teologia **batzuek**

ren egiazko demostratu : argumentu beste objezio jarri bai, ordea (munduaren betiketatasunaz, esate baterako). Hori zala-ta, komunista askok jakintza batzueri (zozoologia — cfr. ohar 3 — sikologia, etc. Marxismoak ez du Freud ritmo gutxitan dantzazera!) jakintzatasuna ukatu nahi izan zizkien, gizajakintza egiazko *bakartzat* ekonomia politika ezaguturik (cfr. Lefèbvre, *Le Matèrialisme Dialectique*, 4. garren agerpenaren hitzaurrea). Uste dudanez gaur bertan ere Geopolitika, esate baterako, sasijakintzatzat estimatzen dute.

Eta gaur intelektualek ez digute ia zientifismo aidetik luzitzen. „Concepción científica de la lucha de clases”, „rigor científico en la utilización de los términos”, etc. ez dirudite, gure artean, serio esanak. Honetan ere zerbait erlatibotzeak ez liguke kalterik egingo, hortarako arrazoirik falta ez dan ezker, batez ere.

Salzburg-eko elkarrizketaz esan da diologo ez baiña trialogo izan zala, hain ez zeuden naturjakintzuak ez marxismoari ez katolizismoari menik egiteko. Bere joku legeak dituzte horiek eta, hor konpon !, egin di diote filosofi-mota edozeini. Jakintzaren *osakizun* edo konplemento bezala onartuko dizute filosofia, gehienez ere, München-go elkarrizketakoan Konrad Lorenz zientifikoa egingo zuen bezala. Eta deskuidatzen bazera, ezta hori ere : Salzburg-en eztabaida zuzentzaille izandu zan Hans Schaefer fisiologoak ez zuen intentzio gabe esan : „mundu honetan edozeinek aitortzen duen poderio bakarra zientziarena da”.

Eta katolikoak eta komunistak hasarre deabrutu baten zirimolan, naturjakintzuek bere ezpezialidadeetako absolututasuna apur bat biguntzen ez badute eztabaida teorikoan aurrerapenik ez elkar ulerpenik ez dala posible-ta...

Izan ere, zientifikoek aixa asko berdindu gintuzten marxista bai katoliko, eta ala nahi zuten elkarrizketa, alde batetik marxista-katolikoak (ipuiak dionez, „adiskidetu ziren egun hartan Herodes ta Pilato!”...) (alegia, teoria, espekulazioa) eta bestetik berak (jakintza positiboa) ziralarik aurrera eramane. Katramillon erdian esan ere

lerreragiten ditu bakarrik...” (Galileo-z oroitzen da). ARRAGOAK, halare, halakoxe testoa eman digu irakurtzeko (cfr. zenb. 4, or. 54): „La existencia del misticismo, del elemento religioso en la conciencia de los hombres primitivos era debida a un bajo nivel de su desarrollo económico y a la falta de madurez en sus relaciones sociales” (N. Ponomarov, *Nacimiento y desarrollo de la educación física*). Bapo... Azalaz eta mamiaz, formaz eta barneaz galdetzea gehiegi sutilizatzea litzake, agian... Ez dakit ARRAGOAK Ilitxov-en informearrekin konforme egongo ote dan. Ez dakit. Baiña ba dakit, baldin personatasunaren prolema oraindik askatu gabe ba dauka marxismoak, hura argitu arte holakorik afirmatzea apriorismo gorria dala.

Hori al da zuen metodo zientifikoa? Eta ba dakit S. di Marco-k diotsala — neu iñor epaitzera ausartu gabe — erliioari jakintza kontrajartzeak logika formalaren metodologia kontraesaten duela, (egia, Errusia-n etzuen honek estimazio haundirik eta hala sartu dute ikasgaien artean bigarren mundugerraren ostean bakarrik). Eta hontaz amaitzeko, ohar bat oraindik. Marxismoak hain ez daki elijioa **zer dan**, eta hain ez daki bere burua **zer ez dan**, ze oraindik eztabaidan dauka ateismoa esentzial ote zaion ala ez. „Marx gaztearen” hauzia dabil tarteko, ta marxisten desakordua nahastaille.

esan omen zuten zientifikoren batzuek errezago izango lirakeala, ezer izan beharrekoan, kristau, marxista baiña (cfr. *Mensaje*, 1966, zenb. 148, or. 183) ... erlijioak, — agian kondairak eskarmentaturik, dana dala — ez baitu jakintsuarekin sartuirtenik, naturjakintsuari bere esparruen mugetatik erlijioarenera salto ez egiteko eskabideaz kanpo, marxismoak, alderantziz, milla bere printzipiotara bildu nahi omen luke jakintsua ta bere printzipio filosofikoek jakintzari biderakusle jarri.

Halare, zintzo esanda, aitor dezagun zientifikoek ez omen zeudela marxismoaren kontra, marxismoaren „atuendo cientifista”ren kontra baizik. Nahi izan ezkerro errez ekarriko genituzke marxismoari laudorio ederrenak kanta dizkioten makiña bat zientifiko ere. (Hori bai, ia guztiok „gortinaren atzetik” kantatzen dizkigute beren ariak ...). Dana dala, printzatu gehiegi ditu marxismoa ta zientzia uztartu nahiak, idi elkarren adarkari gertatu zaizkigu-ta. a) *Marxismoa jakintzaren kontra* : marxismoak zientziari ez batere lagundu ezezik, Lombardo Radice-k dionez, „marxismo dogmatiko ta intoleranteak” zientziaren aurrerapenak trabatu egin ditu (Errusia-n), jakintzen aurkimenduek marxismoaren tesiren bat arriskuan jarri orduko jakintzak pagatu behar izaten zuelako ; eta filosofiak, bere burua „zientifiko” jantzita nahi zuelako, naturjakintzeri ta historiografiari beren bide libreak utzi ordez, *a priori* ezarritako axiomen probak nolana billatzera obligatzen zituelako ; b) *Jakintza marxismoaren kontra* : (hauxe agiri digu esan berria dugunak). Zientziak marxismoari objezioak jarri dizkionean aldiz, (eta hau Engels-en ixkribueetatik bertatik gertatzen dana da), geroagoko jakintzen aurrerapenari apelatu dio marxismoak (Engels, *Die Dialektik der Natur*, Berlin 1952, or. 27) edo teoria zientifikoen kontingentetasunari (cfr. *Grundlagen der marxistischen Philosophie*, G.A. Wetter-ek zitatu, op. cit., or. 34). Ez ditugu hemen objezioak zitatu : banaka batzuek lan honen luzean bidenabar estalgabetuak izan edo izango dira. Hortaz gaiñera ikus bibliografia, urrengo oharrekoa, baiña puntu honi buruz bereziki, marxismoak naturjakintzarekin, Antropologia, Sikologia, Zoziologia, eta Historiarekin dituen sasibide azkengabeak ezagutzeko, cfr. *Wissenschaft u. Gegenwart*” sorta, Anton Pustet argitaldarian. d) *Biak beren bidetatik* : hain zuzen biak beren bidetatik nahi zutelako sortu dira ixtilluok ; horixe erakutsi digu Salzburg-eko saltsa erreak ; marxismoa goratzen labur gelditzen ez dan Jean Orcel bezalako zientifiko batek ere marxismoaren aurrez aurre jakintsuaren autonomia reklamatzeko du (cfr. *Marxisme et Existentialisme*, elkarlanean burututako idazkiaren hitzaurrea). Kondairaren maillan, Marx-en ala Engels-en hitzari eusteagatik gertatzen ari zaizkigunak geroago aipatuko ditugu, bidenabar.

Ikusten danez, ba, ez marxismoak jakintzari etsi ohi dio, ez jakintzak bere burua marxismoak gidatzeko utzi nahi du (14).

(14) Hiru atalok adibide konkretuekin indartu beharko genituzke, baiña horrek asko luzaeraziko ginduzkeanez, bekit aski bibliografia apur bat erakartzea : G.A. Wetter, *Philosophie u. Naturwissenschaft in der Sowjetunion*, Hamburg

Beste orrenbeste esango nuke „herri sobietikoa” gehiegi ahotan erabiltzeaz : „la hazaña científica de Leónov y del pueblo soviético”, etc. Hizkuntza horrekin, nire gustorako behintzat (ez dut ukatuko mailla oso sujetiboan sartu naizela, baiña ez dut uste arras sujetibo danik : egunen batean gure literaturkritikoez gonparaketa-azterkizun bat burutzen badigute marxismoaren, faxismoaren, hitz batean, totalitarismoen literaturizkuntzena ta estiloena, ta hoek bildutako materiala psikologoez analizatzen badute, argitasun gehiago izango dugu gaur baiño ; eta ez da hain sujetibo izango barruti hau), gehiegi urbiltzen zatzaizkiote faxisten propaganda hizkuntzari. Eta ez da ahaztu behar haiena ere „langilleen erreboluzioa” omen zala... Gauzak, uste dut, diran bezala hartu behar dira, naturaltasun guztia-rekin, kondaira idealizatzeari bere neurrietan eutsirik (areago, P.N.V. ri euskal kondaira idealizatu izana tatxatzen badiozute). Batere eskrupulorik gabe agertzen digu Fischer-ek Errepresioa (marxismoaren esanahian erabillita) Errusia-n ere minoria batek egiten duela, maiorantzaren izenean egin arren. Havemann-ek esaten digu langilleak deskontentu bizi dirala. Lefèbvre-k esaten digu naziotasunen prolemak Errusia-n ere Leoncio Peña-k dion parafisuan ez baiño purgatorioetan bizi dirala, etc. Hori guztia justifikatu nahi baduzute, egizute lasai, baiña izkutatu bada egiten duzuten, „el pueblo soy yo” dala pentsatu bekarko dugu. Eta elkarrizketa zailla izango da.

Elkarrizketa oso zailla izango da, baita ere, hitz ekibokoak bein betiko argitzen eta beren zentzuna finkatzen ez badugu : Demokrazia itzaren zentzuna, adibidez.

Marxismoaren desberdintasunez ari naizen ezkerro, ez nuke aipatu gabe pasatzen utzi nahi gure arteko hauzi bat. Naziotasun eta nazio nahiaren prolemak burua jaso digu. Eta „marxismoa” zatibituta (gutxienez bi) agiri zaigu hemen ere. Aspaldiko zatiketa, bestetik, Lenin eta Stalin ere alegindu baiziran prolema honi buruz. Natorren, ba, etxera : hor daude Sarrailh Ihartza-kok *BRANKA*-n botatakoak. Sarrailh-ek marxismo jatorrenaren izenean esandakoak ez bakarrik

1958 ; eta H. Ogiermann, *Materialistische Dialektik*, München 1958. — Marxismoaren aldetik, berriz : Leszek Kolakowski, *Der Mensch ohne Alternative*, München 1960 ; Robert Havemann, *Dialektik ohne Dogma*, Hamburg 1965. Havemann-ek dionez materialisma dialektikoak ez du azkeneko berrogei urteotako naturjakintzen aurkimenduetan arterik ez parterik izan. Havemann naturjakintsua da : Hitler'ek heriotzera galdua, baiña bere inestigazioetarako behar zuelako bizirik gordea ; eta komunista : DDR-ko Errikamera-ko deputatu. Havemann-ek eztabaida latzak izan ditu filosofo marxistekin, eta hoek absurdura eraman nahirik aurpegiratzen diotena, „filosoforik gabeko filosofia” nahi omen du. Honek, berriz, naturjakintzez ezer ez dakiten filosofoek ezagutzen ez dituzten esparruetan ez sartzea zuhurrago luketela, osteratzen die. Kolakowski-k, oraindik, „jakintzatik ernea dan Ideologiak ezin duela zientifiko izatearen fatxada abandonatu”... eta marxismoak mitologia bat bihurtu duela jakintza. Cfr. Ernst Fischer-en *Kunst u. Koexistenz*, Hamburg 1966, or. 51-55. — Ez dut ukatuko naturjakintsuen artean ere ez zaiola marxismoari apologistarik falta : S.J. Wawilow, etc. Baiña eztabaidan gaudela jakitea nahikoa da gure asmorako.

„Donosti” eta „grupo de trabajadores vascos” hura kontraesaten dituzte, ezpada baita *A r r a g o a* -n ikus ditekean pentsaera osoa ere, nik uste. Carlos de la Torre Nocedal eta Sarrailh batean hartzen baditugu edo Leoncio Peña, zein da benetako marxista? Prolemak merezi luke argitzea, puntuzko puntua baita hori euskaldunontzat. Elkarrizketa edo elkarrozketa, Sarrailh-ekin eta besteekin ere (bai baita besterik, gai honi buruz marxismoa aztertu duenik) egin behar-ko duzute, prolema hori guztion axolakoa dan ezkerero.

Adibideak nekerik gabe ugari gintezke: marxismoa ezpalduta agiri zaigu eta ezpalketa au ez da „txinokeriaren” ondare (nik alde batera utzia), filosofiarena ta kritikarena baizik. „Marx gaztearen” inguruan billakuntza berriak egiten dirala dirudi (Garaudy: katolizismoan bezalaxe marxismoan ere iturburuetara itzulpenak eman dio berriua filosofiari) eta marxismoaren interpretazioa eztabaidan dago marxistentzat berentzat. Marx eta Engels ez dira binomio banaezin, are gutxiago Marx-Engels-Lenin hirutasun santua (adibidez, dialektikaren legeak naturalezan ala kondairan eraberdinean balio ote duteneko kakoan, Partiduaren zeregiñean, etc.).

(Cfr. VI garren atalburuan argitasun gehiago.)

Beraz, *A r r a g o a* marxista dala jakitearekin oso gutxi dakigu oraindik. Zein marxismo da hori? Hau da elkarrizketak argitu behar-ko ligukeana. Ze, honen ondotik, oso desberdiña izango litzake elkarrizketaren martxa.

IV. EZ DAUKAGU TEORIARI BURUZ ELKARRITZEGITERIK

Nahasturik dabil teoriaren aldea. Gaiñera, mailla honetako elkarrizketak esegesi prolema kondairakoak erabakita eukitzea eskatzen du aurretik, hoek, ordea, eztabaida bizian daude marxisten beren artean. Marx-en teoria bere kontextu ta ingurumarien konformidadean tinkatzea ta ulertzea neke astunegia litzake oraingoz guretzat. Hontaz kanpo, Marx-en autoridadeari estimazio apartekorik ez diogunontzat ez du interes berezirik ere Marx-ek benetan hau ta hura hola edo bestela ulertzen zituen argitzeak. Prolema historiko gisan puntuzkoak izango dira, beharbada, baiña elkarrizketa onenak ez dira noski kondaira inbestigatzeko asmoak, urrutitik ere.

Nik, ba, teoriari buruzko elkarrizketa nolazpaitean abandonagarritzat etsiko nuke. Erljioa opio dan ala ez, dialektikak zein alde ta kontralde lituzkean neurtzea, konzientziare agerpena materialismoan nola litekean posible, askatasunaren puntuak ez ote duen materialismo dialektikoaren barnean kontraesan izugarri bat sortzen (puntu honetan, adibidez, ozta ozta aurkitzen du marxismoak ezer gutxi Marx-engan, gehiena Engels-i eta Lenin-i zor dio), marxismoak Materiari ezartzen dizkion propietasun eta kalitafeek filosofia nahiz jakintza kontraesaten ez ote dituzten, etabar, gure gai izan behar ote dute?... Ezetz esango nuke nik.

— Eztabaida sistematiko batek urrutiraegi eramango gintuzke: antropologiako, filosofiako, teologiako, zoziologiako... printzipio sakonenetaraiño, hain zuzen.

— Nork egingo liguke, ordea, lan ori ? Zeren-eta, ez da aski euki bai, eukitzea, horretarako gauza lirakean gizakume eskolatuak. Lan-du eta ikasiak izateaz gainera, elkarrizketarako pronto egon beharko lukete. Eta ez dauden artean, daukagun errealidadeari egin beharko diogu kontu.

— Modurik ere ba ote dugu hainbesterako, gero ? Tailla horretako elkarrizketa batek gurea ez bezalako giroa du beharrezko. Unibersidadeak, jakintza aldizkariak, ezpezialistek batez ere, eta herri iritzia-aren erreazioek beharko lukete parte hartu halako elkarrizketa ba-tean. Gurean askatasuna itxaropen huts besterik ez dugun artean, berriz, ez holako hedadura ez zabalkunde ez interes jeneralik ames egiten ausar gintezke, ni behintzat (Maurice Thorez-ek bere „ez da imposible” klasikoarekin osteratuko lidake, baiña posible soillek ez naute konformatzen).

Gure elkarrizketa, ordea, erdi izkutu eta izkutugatik mugatu izan-go da, derrigor.

— Eta azkenik, inporta al zaigu ezer askorik mailla horretako eztabaida ta elkarrizketarik ? Guri, esan nahi dut, gure egoera kon-kretoan eta gure asmoetarako. Ze, Muruzabal-ek hitza bera erabili ez arren agirian uzten duela dirudit, elkarrekintza izango litzakeala elkarrizketaren jomuga (gaiñuntzekoan hitz berorixe darabil Garau-dy-k eta sentidu berdiñean agertu zan P.K. Italiarraren XI garren Biltzarra. Irumugarrieta-k ere : „pasemos del campo de la verdad y del error al de la vida palpitante, al de la vida política... campo donde hay espacios más amplios para el diálogo que en el palenque filosófico” (or. 81).

(Korapillo bat, emen : nola elkarrekin lanegin, elkar ezagutzerik apenas badezakegu ? Ez ote du teoriak ekintzaren aurretik joan behar ? — Objezio honek, halare, ez du erdiak baizik balio : elkarre-kintza ez dala baldintzagabea ta itsu itsuan eramatekoa adierazten digu. Eta teoria ez dagola zeharo zabartzerik, batez ere ekintzari orpo orpotik lotzen zaizkien irakaspenen ataletan.)

Nik neuk eta neuretzat interesgarriagotzat ematen dut teoriari buruzko elkarrizketa. Baiña, lehenengo : ez nago seguru posible ote dan eta ez dut ondo ikusten zein interes izan lezakean. Ze, bigarren : elkarrizketaren asmoak elkarrekintza batera jotzen dute, bai Irumu-garrieta-k Muruzabal-ek eutsi dutenez.

— Beraz, konforme nago Irumugar — eta Muruz — en elkarrizketa praxira zuzentzeko iritziarekin. Ez dut uste, halare, teoriaren aldea zeharo bazterrera dezakegunik. Nolanahiko elkarrizketa funtsezkok eramango baigaitu printzipioetara, *derrigor*. Ez zagon ahaztu, alare, printzipio hoek ez dirala gehienetan azkeneko printzipioak, praxiari urbillenetik egokitzen zaizkionak baizik, izango (beraz, ados etor gintezkeanak), eta baita ere Europa-n aurrera doala elkarrizketa. Europa erdian dabillenaren informazio on bat da beharko genukeana eta teoriari aurrea ez hartzea... gehiegi behintzat (ze, jakiña da ekintza teorizatzeari sarritan aurreratzen zaiona).

(Honi buruz, niri etzait kasualidade iruditzen marxismoa Ale-manian-jaio izana, ezta ere marxismoari eboluziorik eta aldaketarik galantena erantsi dioten filosofoak (marxista) alemaniarrek izatea,

are gutxiago alemaniar marxista filosofo ospetsuenetakoek (austriarrak aleman kontatzen ditut, noski) pentsamolde ofizialarekin hainbat hasarre izana. Nahikoa da filosofiaren kondairari begiratu bat, joandako gizaldiotan filosofiaren burua Alemania izan dugula konprogazteko. Izan ere, naturalezak berdin egin gintuzen gizonok, apika, baiña jeografiak eta batez ere kondairak oso desberdin utzi gaituzte (honek ez dauka Plechanow-ekin zerikusirik), berdin sortuok geure izana desberdin izaeratu dugula gogoratu gabe. Gizarte bizitza eta pentsakera produziñoak sortu omen zituen bezalaxe, produziñoa bere aldian bizi beharrak eragindako inguruari egokitu beharretik sortua baita ; eta inguru honek, beste izen askoren artean, jeografia deritza. Elkartu jeografia kondairarekin, eta zerbait argituko digute guzti honetaz. Eta erantsi oraindik hizkuntza, marxismoa baiño filosofia berriago batzuek destakatzen digutenez, etc. Orain marxista diralakoan agertzen diran zenbaiteri entzuten zaiona, ots, alemaniar filosofoen batzuek marxismoari egin dioten kritika arrazoiñalista dala, eta alemanak „buru koadratua” daukatela, ez da postura serio, ta Marx-entzako ere balio behar luke, bestetik.)

— Elkarrizketa bat ez baita bi tanborren elkarrekilako ritmoa, ots, ez „tra due vuoti, ma tra due posizioni diverse”, Ruggero Orfei-k italiar komunista katolikoek elkarriketarako oharrerazten duen bezala. Elkarrizketa zintzo batek pentsaldi serio ta sakona eskatzen du (Garaudy), ez „denpora pasatzeko plazer berriketarik” (Metz). Ezta ere da elkarrizketa „burruka metodo diferenterik” (Mario Gozzini), ez „astuzia pragmatika” soillik (Natta, Rinascita, 12 febbraio) : ezin printzipoak sekula bixtatik gal gintezke.

(Oñarriok, ordea, katolizismoarenak diran aldetik ez dizkiguzu oso argi azaldu, jaun Irumugarrieta adixkide : gizonon berdintasunari dagokiona, adibidez. Eta Muruzabal-ek ez du ezer mejoratu egoera au...)

— Edozein komunistak eta nolanahiko katolikok ezin elkarritzezin dezakete inola ere. Garaudy-k aho xuririk gabe garbi jarri diguna da, hamar edo hogeitatu urte atzeratutako Teologiaren kategorietan pentsatzen baratu dan katolikoarekin ez dutela komunistek elkar ulertzeko modurik. Ez dute elkarrenik ezer, ezta hizkuntza ere.

Marxista batek ulertzeko moduko Teologiaren hizkuntzak baldintza bi bete behar ditu Garaudy-ren esanez : zientzia eta fedea egokitzen jakin behar du, zientziaren baliotasuna onartu behar du (Teilhard de Chardin-en ekintza) eta kristautasunari, erlijioari bere mito, mistizismo ta eraskin estrainio guztiak erantzi bear dizkio (Rudolf Bultmann-en entseiua onartzen du, alde onetan). Au guztia, jarraitzen du Garaudy-k, egiña dago puska on batean eta hortatik da posible elkarrizketa. Alegia, *ezagutzeari* dagokion aldetik Bultmann-ek egin digu ; eta *ekintzarenetik*, Teilhard-ek.

Orain ba, Bultmann protestantea baita, espainiarera itzuli ere egin gabe dago... (Gaiñera, nola ba diran hirukotx laukotxak ere, gure Muruzabal-ek ez du, dirudienez, Bultmann-en beharrik izan komunistekin primeran konpontzeko, Bultmann-ekin berarekin baiño hobeto, alajaiñetan...)

— Filosofiari begiraturaz, oraindik, ez dakit Espaiña-ko Unibersi-

dadeak aproposenak izango ote diran, elkarrizketa posibletzen duen irakaspena ematen...

Hor dugula elkarrekintza, elkarrizketaren oiñarri? Ez dut ukatuko. Baiña nahiz gerrakoan (cfr. *ARRAGOA*, 2, *Con propósito de diálogo*, or. 100) nahiz gerokoan, kondizio ezin zatarragotan gauzatu da elkarrekintza hau beti: nahita eza ta derrigorra eragille genituela, ez borondate librea berez, koaziñorik gabe, hartaratu zitzaigulako. Alare, ezin uka zerbait ba dala... ez dakit elkarrizketa benetako baten alde ala kontra, baiña.

Zeharo kondizio aldrebesetan hasten dugu, ba, benetan, elkarrizketa hau. Eta bildur naiz ezer gutxi eman ahal izango digun. Ez baitu uste Muruzabal-ek idaroki bezain giro ederra daukagunik. Teoriari buruzko elkarrizketa abandonatu beharra, aldiz, beharra izango da, baiña galera haundiegia sentitzen dut nik.

Eta buka dezadan puntu hau: prolema teòrikoak alde batera, ekin-tzarakotan elkarrizkegingo dugu. Beno. Baiña elkarrekintza, berez, abstrazio bat da. „Descubrir... a través del diálogo el punto de coincidencia, de coexistencia, de convivencia, para realizar el bien... en la lucha en contra de la injusticia, en contra de la explotación del hombre del hombre...” (Muruzabal, *ARR.* 5, or. 31), hori guztia ba leike oso konkreto izatea, bildurgarri konkreto, baiña abstraktoegi, oraindik. Teologia praxis da: zein praxis, gero? Zer nahi dugu ta zer behar ta zer da posible? Esplikatuko naiz. Bai Rahner-ek eta Metz-ek eta bai Garaudy-k, helburu hau ezartzen diote elkarrizketari: etorkizuna landu. Errealista bagera laister antzemango diogu, *etorkizun* hitzak oso karga diferentea duela Europa erdian eta Euskal-lerrian edo Espaiñiar Estaduan, orokar esanda. Zerbait oso konkretoa da gure etorkizuna: metodo, lan, eginkizun konkretoak signifikatzen dizkigu. Rahner-en „etorkizun absolutua” edo Garaudy-ren „giza etorkizuna” idealtxo gelditzen zaizkio gure perspektibari, praxira doan elkarrizketa hitzegin nahi ezker. Eskuen puntan daukagun etorkizunak estrukturatzen du gure pentsakeran besteak letra haundiekin idazten duten Etorkizun hori. Eta honek prolema berriak eta orijinalak aurreratzen dizkigu.

Eta hitzegin eta ekin nahi duenari praxiaren erraminta (teoriaz gaiñera) ondo menderatzea eskatzen dio. Zuk presentatzen zenituen gai batzuek, Irumugarrieta. Primeran, ola ondo iruditzen zait. Euskal Unibersidadeari buruz, adibidez: irakaste programari dagokionean eta, diferentzia haundiak izango omen ditugu, baiña onek ez omen du berdintasunik ukatu ahalgo. Bapo. Unibersidadeak ez dut uste etxe-agatik, programagatik beste interesatuko zaizkigunik. Ba dabil ormitologietan Skiron izeneko barrabanen bat.